

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun gazteek asteburu dibertigarri eta originali batez gozatzko dituzten aukerak oso mugatuta daudela uste dugu. Izan ere, aisialdirako ekintza berritzaileak eskaintzen dituzten lekuak ez dira oso ugariak eta are gutxiago landa-eremuan.

Hori gutxi balitz bezala, leku hauek ez dute asteburu oso bat pasatzeko aukera ematen, ordu gutxiko ekintzetara mugatzen baitira. Horregatik, gure helburua beste enpresa arruntek proposatzen dituzten jarduera aspergarri eta laburrengandik aldentzea da, bezeroei irtenbide berri eta aberasgarri bat eskainiz, naturarekin lotura duen leku batean, gainera.

Gure proposamena ekintza-aniztasunean oinarritzen da, Scape Rooma, mendiaz gozatzea eta taberna gure zerbitzuen barne egonik. Horrela, asteburu ahaztezin bat pasatzeko aisialdi proposamena eskaintzen diegu gazteei.

BALOREZKO PROPOSAMENA